## 1.ZORAGARRIA

Bai zoragarria.Bai hoberik ez da.
Begiak zabaldu eta berehala
goizero asko dira hala diotenak
ez dute ezkutatzen beren zoriona
nahi duten guztia eskura dute eta.
Bai zoragarria.Bai hoberik ez da.
Haien ametsetan azaldu den hura
iratzarri eta hor dute alboan
leihoa ireki eta itsaso barea
begi-bistan dute urdin eta ederra.
Bai zoragarria.Bai hoberik ez da.
Ezin uka nire inbidia
Nork ez luke izan nahi horrela?
pozik beti, asebetea
halakorik ba ote ordea?

## 2. MAKURKERIAREN IZENAK

Ubeldura eta zauri
nonahi gorputz osoan
hamaika kolpe eta ostiko
ur azpian burua
Hogei urte pasa arren
deus guti aldatu da
Amparo deitu edo Iratze
tortura beti bera.
Behin eta berriz (gertatu behar)
Milaka haur eta emazte
errugabe hil behar
milaka bonba ereinda
Asiako zelaietan
gaur egun ere mordoka
txikitu Amerikak
Afganistan edo Irak
Justizia Unibertsala.
Behin eta berriz(gertatu behar)
Makurkeriaren izenak
aldatu egiten dira
sioux esan nahiz txeroki
gorria nahiz taliban
Onak, ordea,beti on
jainkoaren laguntzaz
guztion askatasuna
dute helburu bakarra.

## 3. GURE BESTA

Irriz hi, irriz ni, ederra gure besta
Irriz hi, irriz ni, nehon hoberik ez da.
Urte luzez elkarren atzetik
azkenean biok elkarrekin
amets hutsa, gure asmakizuna
hona hemen guztiz gauzaturik. Irriz hi...
Zernahi metal urre bihurtzea
aiseago lortuko genuela
anitz urtez zaigun iruditu
zorionez ez dun hala agitu. Irriz hi...

## 4. OMENKA

Dakigun guztiaren berri omenka.
Ba omen da munduan guztientzako aski
zer jan eta zer edan aski eta sobera kasik
Ba omen da munduan, bizi garen honetan,
denok pozik eta zoriontsu bizitzeko lain.
Dakigun guztiaren berri omenka.
Gizon-emakumetan denok berdinak omen
bakoitza bere gisan bizi daiteke hemen
zernahi aldarrikatu, noranahi abiatu,
gaurko mundua baino libreagorik inoiz ez.
Dakigun guztiaren berri omenka.

## 5. EZ AGINDU DEUS

Goiz batean itzartu ustez bakarrikan
zerbait somatu duzu ondo-ondoan
aldera begiratu ia oharkabean
ezin duzu sinetsi ikusitakoa.
Ez agindu deus.
Egun guztiak berdin nahiko nituzke hasi
beste ezeren aurretik zu, maite, ikusi
Ez ote da gehiegi? beldurtu egin naiz ni
aspergarria naiz ez izan dudarik.
Ez agindu deus.
Hori ezin litekeela sinestarazi nahi
izan didazu orduan, musu bat emanik
Maindire arteko hitzak ahazten dira aurki
ohetik jaiki eta badoaz ihesi. Ez agindu d

## 6. FEDE APURRA

Zu zaitut infernu
infernu eta zeru
zu zaitut aingeru
aingeru eta deabru...
Gazte nintzela galdu nuen fedea
harrezkero ez dut jainkorik
haren irudiz sortu gizonaz
ez dut iritzi hoberik.
Emakumearengan sinesten dut ordea
hagitz gutietan baldin bada ere
eta zugan bereziki
fedea gorde dut nik
hamaika konturen ondotik.
Zu zaitut infernu...
Goiti eta beheiti narabilkizu
goiti eta beheiti taigabe
orain infernu, zerua gero
gurpilak gelditzerik ez.
Droga gogorra zara
niretzat gogorrena
zugandik nola ihes egin?
Ahalegindu naiz baina
debalde guztietan
etsiak nola ez nau hartuko bada?
Zu zaitut infernu...

## 7. TELEFONOA

Deituko dizut, hots eginen dizut.
Edonora noala, edozein kaletan
horra lagun zaharrak, inoizko handienak
aspaldiko, zer berri? galdetzen didate
nondik ibiltzen zara, non zara ezkutatzen?
Ezkutatu inon ez, diet nik erantzun
telefonoan ere zenbaki berbera dut.
Deituko dizut, hots eginen dizut.
Nitaz ahaztu ez direla, gogoan nautela
ziurtatzen didate, behin eta berriro
Ongi da, ez kezkatu, lasaitzen ditut nik
ulertzekoa da-eta, hain haiz lanpeturik
Hori entzun eta gero badoaz kontentu
adiskide jatorrak, betikoa aginduz.
Deituko dizut, hots eginen dizut.
Etxeko telefonoak mutu dirau bitartean
bazter batean ahantzia eta hautsez estalita.
Deituko dizut, hots eginen dizut.

## 8. BEGIA

Mundura sortu eta
behingoan negarra
hasi-hasieratik
dena begibistan
Bizitzaren izaera horra agerian
gure hemengo aldiaren egiazko funtsa.
Denboraren ertzak
zorrotzak benetan
urratu eta zauri
oinaze eta min.
Izugarri, eramangaitz, pairatu ezin dena
gezurrean aurkitu guk sendagai bakarra.
Begiari esker, sortu zen orori
heldu noizbait bere azkena.
Begiak itxi eta
istant ber-berean
fini, akabo guztia.

## 9. G.K.E.

Hi, nora hoa? Egun osoz jarrita betiko zokoan
asperturik nagoela, maizenik etsita
zutitzera saiatzen naizen bakoitzean
badut norbait ondoan hasteko galdezka:
Hi, nora hoa? Alboan nituenak ustez laguntzeko
eskua eskaini ordez egin ninduten jo
geroztik hemen nago, mutu eta soraio
ez dut berriz entzun nahi horrenbeste orro.
Hi, nora hoa? Gaixo omen nago ni aspalditik
ezin dut, antza, oraindik ongi ikusi
ezin nik ongi adi, mintza edo ibili
esan, beraz, zer ote naiz ni? Hi, nora hoa?

## 10. ASPALDIKO DANBORRAK

Kantari ilunak ez du ulertzen
gertatzen zaiona hain ustekabe.
Aspaldiko kezkak (zoro eta ergel)
berriz bere baitan ditu sentitzen.
Hamaika amodio kanta egina izan arren
hortaz ez dakiela ezer da ohartzen.
Mundua bezain zaharra maitasuna bada ere
beti berri,beti gazte da agertzen.
Eskuak dardarka, ahotsa ere
jotzen du gitarra sokarik gabe
Erritmo zorrotza ari da entzuten
danborrik onena bihotza omen.
Hamaika amodio kanta...

## 1-ZORAGARRIA WONDERFUL

It´s wonderful, there isn´t anything better. That´s what they say every morning / when they open their eyes / They don´t hide their happiness. / Anything they fancy is within reach. It´s wonderful, there isn´t anything better. The one who shows up in their dreams / is there by their side / They open the window and there is the sea / beautiful and blue for their eyes. It´s wonderful, there isn´t anything better. I can´t deny my envy / who wouldn´t want to be like them / always happy and satisfied / but is there really anyone like that?

## 2-MAKURKERIAREN IZENAK THE NAMES OF EVIL

Wounds and bruises all over the body / blows and kicks, her head under water / Twenty years gonne by but very little has changed / she may be called Amparo or Iratxe but torture reminds the same. Once and again(it happens) Thousands of innocent women and children murdered / Thousands of bombs sowed on the Asian fields / America still kills by the thousands:Afganistan, Irak / Universal Justice. Once and again(it happens) The names of evil change / Call them sioux or cherokee, red or taliban / The good ones always good / with god´s help / our liberty their only goal.

## 3-GURE BESTA OUR PARTY

You smile, I smile,what a wonderful party / You smile, I smile, it doesn´t get any better than this. After many years of chasing each other / we´re finally together here / a pure dream, our invention turned into reality. You smile, I smile, what a wonderful party / You smile, I smile, it doesn´t get any better that this. For long years we thought that it would be easier to turn lead into gold / fortunately it hasn´t been that way. You smile, I smile, what a wonderful party / You smile, I smile, it doesn´t get any better than this.

## 4-OMENKA THE TRUTH THEY TELL US

There´s supposed to be enough in this world for everyone / enough and even too much to eat and drink / There´s supposed to be enough for everyone / to be happy and satisfied. Everything we know, we know ´cause we´ve been told. Men and women are supposed to be equal / everyone lives his own life here / says whatever he feels like saying / goes wherever he feels like going / There´s no place freer than here. Everything we know, we know ´cause we´ve been told.

## 5-EZ AGINDU DEUS DON´T MAKE ANY PROMISES

One day you wake up thinking you´re alone / but then you feel someone close by your side / you look absent-mindedly / and you can´t believe your eyes. Don´t promise me anything I´d like to wake up seeing you / is that too much to ask? I´m afraid so. / I am boring to be sure. Don´t promise me anything You try to convince me it´s imposible / Pillow talk it´s gone as soon as we get out of bed. Don´t promise me anything

## 6-FEDE APURRA JUST A LITTLE BIT OF FAITH

You´re my hell, my hell and my heaven / You´re my angel, my angel and my devil. I lost my faith when I was young / and since then I don´t have any god / In man created in his image I hold a low opinion / But I believe in women,though not very often / and specially in you since in you I´ve kept my faith even after so many years. You´re my hell... You take me up and down / up and down all the time / Now hell, then heaven / the wheel never stops / You´re a hard drug / the hardest for me / How could I get ride of you / I try but always in vain / how can I not despair. You´re my hell...

## 7-TELEFONOA TELEPHONE

I´ll call you, I´ll give you a ring Anywhere I go, in any street / my old buddies might show up, once my best friends / Long time no see, what are you up to / they ask me. Where have you been hiding yourself? / Hide myself? Not at all. I still have the same old phone number. I´ll call you, I´ll give you a ring Over and over they promise me / I am not forgotten, I´m still in their minds / It´s OK, don´t you worry, I reassured them / I understand, you´re just to busy. / Then they walk away happily / my good friends, telling me the usual: I´ll call you, I´ll give you a ring But my phone stays silent / forgotten and covered with dust / in its corner.

## 8-BEGIA EYE

The minute we´re born we´re crying / it´s the nature of our life / the essence of our being. Sharp is the edge of time / wounds and scars / pain and suffering / Awful, unbeareble, too much to take / Lies are our only medicine. Everything conceived by the eye / has to meet its end / Shut your eyes and it´ll all be over / everything gone.

## 9-G.K.E. N.P.O.

Where´re you going? Sitting all day at the usual place / bored and often desperate / every time I try to get up / there is someone to ask me: Where´re you going? Those who I thought were there to help me / they beat me instead of lending me a hand / Here I am mute and alone since then / I don´t wanna listen to all that noise. Where´re you going? I´ve been sick forever / I don´t seem to be able to see clearly / nor can I hear, talk or walk / Tell me, what am I supposed to do?

## 10-ASPALDIKO DANBORRAK THE OLD DRUMS

The singer can´t understand what is happening to him all of a sudden / he feels his old stupid worries return / eating him from the inside. He´s written a lot of love songs / and still knows nothing about it / Although love is as old as the world itself / always shows up new and young. His voice and hands trembling / he plays a stringless guitar / He hears a sharp rhythm / the heart is the best of drummers.